

ARAUDIA,
BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAE-AREN
BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE
LABURRERA
BANAKAKO GIZARTE
AURREIKUSPEN PLANARENA

2020ko abendua

ARAUDIA, BANAKAKO
BASKEPENSIONES BGAE-AREN
BANAKAKO BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA GIZARTE
AURREIKUSPEN PLANARENA

I. TITULUA:

XEDAPEN OROKORRAK

1. art. PLANAREN IZENA

Prestazioen araudi honek (“**araudia**”) BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAE-AN integratzen du (“**BGAE**” edo “**erakundea**”) “BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA” (“**plana**”) izeneko banakako modalitatearen gizarte aurreikuspen plana.

2. art. ARAUDIAREN XEDEA

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planaren araudiak, BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEari atxikitakoak, BGAEaren eta planean sartutako bazkideen eta onuradunen arteko harremanak arautzen ditu, baita horien eskubideak eta betebeharrak ere.

3. art. PLANAREN MODALITATEA

BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEan integratutako plana, bertako bazkideen edo elkartuen arteko lotura dela-eta, **banakako sistemaren** modalitatean kokatzen da eta, ezarritako ekarpenen eta prestazioen araudia dela-eta, **ekarpen definitu** gisa definitzen da.

4. art. PLANAREN HASIERA DATA ETA IRAUPENA

Plana erakundean sartuta dagoela ulertuko da, Eusko Jaurlaritzako agintaritzak eskudunak baimena emateko ebazpena eman eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatu ondoren.

Era berean, plana epe mugagaberako eratuko da, eta iraupen mugagabea izango du.

II. TITULUA

BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK

I. KAPITULUA

MOTAK ETA EZAUGARRIAK

5. art. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA EZAUGARRIAK

Erakundearen estatutueta xedatutakoaren arabera, BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEan bazkideak mota hauetakoak izan daitezke:

A.- Bazkide sustatzailea

Bazkide sustatzailea Kutxabank, S.A. da. Bere borondate eratzaillearekin eta hasierako ekarpenekin parte hartzen du borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde baten sorreran eta eraketan, eta haren gobernu organoen parte da, erakundearen estatutueta ezarritako moduan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kutxabank, S.A.k Bilbon (Bizkaia) du egoitza (On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 30-32), eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 5.226 liburukian, 1. folioan eta BI-58.729 orrian, eta A-95.653.077 IFZ zenbakia du (“**bazkide sustatzailea**”).

B.- Bazkide arruntak

Bazkide arruntak edo osoko bazkideak pertsona fisikoak dira. Horiek prestazioren bat lor dezakete beraientzat edo beren onuradunentzat, unean indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera (“**bazkide arruntak**”).

Bazkide arruntak modalitate hauetakoak izan daitezke:

- Bazkide arrunt aktiboak: haienezat edo haien onuradunentzat prestazioren baterako eskubide bat duten pertsonak dira, beren kabuz edo beren izenean dauden hirugarrenek egindako ekarpen ekonomikoen bidez (“**bazkide arrunt aktiboak**”).
- Bazkide arruntak etenduran: bazkide aktiboak izan arren, ez dute ekarpenik egiten, hiru ekitaldi ekonomikotan hala beren kabuz nola hirugarren pertsonak haien izenean (“**bazkide arruntak etenduran**”).

- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktiboak izan arren, gertakizunaren ondoren prestazioaren zuzeneko titular izatera pasatzen dira, subjektu babestu gisa (“**bazkide arrunt pasiboak**”).

Era berean, erakundeak onuradunak integratu ahal izango ditu. Onuradunak izango dira, kausatzailearekin duten harremanarengatik, kontingentzia gertatu ondoren prestazioaren titular izatera pasatzen diren pertsona fisikoak (“**onuradunak**”).

Atxikipen buletinean edo zuzenbidean baliozkoa den edozein frogabidez onuradunak izendatu direla egiaztatzen duen ondorengo dokumentuan onuradunak berariaz izendatu ezean, hauek izango dira onuradunak, lehentasunez eta baztertzeko hurrenkeran:

- 1) Legez banandu gabeko ezkontidea edo behar bezala eraturako izatezko bikotekidea.
- 2) Ondorengoak leinuen arabera.
- 3) Aurrekoak.
- 4) Legezko oinordekoak.

II. KAPITULUA

SARTZEKO, KIDE IZATEKO ETA BAJA EMATEKO ARAUBIDEA

6. art. PLANARI ATXIKITZEA

Bazkide arrunta izateko, banakako eskaera egin eta gobernu batzordeak (“**Gobernu Batzordea**”) zehaztutako gutxieneko kopuruak eman beharko ditu, eta araudi honetan jasotako arau guztiak onartu beharko ditu.

Bazkide arrunta banakako eskabidearen bidez atxikiko zaio planari. Eskabidean, aldian-aldian, hala badagokio, planari egingo dion ekarpenaren zenbatekoa adieraziko da, baita Gobernu Batzordeak ezar ditzakeen gainerako zehaztapenak ere. Atxikipen hori bazkide sustatzailearen, KUTXABANK, S.A.ren, bulegoetan egin ahal izango da, baita urrutiko edozein komunikazio prozeduraren bidez edo Gobernu Batzordeak zehaztutako beste edozein moduren bidez ere.

7. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN BAJA

Bazkide arruntek eta onuradunek baja emango dute, erakundearen estatutuetan xedatutako kausez gain, alderdi hauengatik:

- Heriotzagatik.
- Eskubide ekonomikoak guztiz eskuratzeagatik, horretarako legez eta erregelamenduz aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

III. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEaren estatutueta xedatutakoak izango dira, jarraian adierazten diren zehaztapenekin:

8.1 Eskubide ekonomikoak mugitzea

Bazkide arruntek eta onuradunek BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planeko beren eskubide ekonomikoak, erabat edo partzialki, mugitu ahal izango dituzte BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEan integratutako beste plan batzuetara. Plan garantizaturako mugituz gero, mugimendu horiek ahal direnean egin beharko dira, dena delako plan garantizaturako bere garaian zehaztu ziren araudiak betez. Helburu horrekin, beren nahia jakinarazi beharko diote Gobernu Batzordeari eta azken honek, legeak, estatutuek edo araudiak eragozten ez badu, eskubide hori gauzatzeko behar diren neurriak arbitratu beharko ditu, horretarako zehaztutako legezko gehieneko epean, jakinarazpenetik kontaktzen hasita.

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planeko bazkide arrunten eta onuradunen eskubide ekonomikoak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko beste erakunde batera mugitzeko eskaera idatziz egingo zaio Gobernu Batzordeari, eta eskatzen den unean indarrean dagoen araudiari egokituko zaio. Gobernu Batzordeak, legezko, estatutueta edo araudiko eragozpenik izan ezean, mugitzeko eskaera gauzatu beharko du eskaera egin eta legezko gehieneko epean, mugimendu hori bidezkoa denean.

8.2 Eskubide ekonomikoak alde aurretik eskuratzea (erreskate eskubidea)

Bazkide arruntek alde aurretik eskuratu ahal izango dute aurreikuspen planetara egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partziala, baldin eta 10 urtetik gorako antzinasuna badute, aplikatu beharreko araudian xedatutako moduan eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako agintaritzak eskudunak zehaztutako irizpideak kontuan hartuta.

8.3 Aldian aldiko informazioa

Bazkide arrunten eta onuradunen eskura jarri beharreko informazioa eta dokumentazioa alde batera utzi gabe, estatutueta eta aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera, bazkide arruntek eta onuradunek gutxieneko informazio hau jasoko dute aldizka:

1. Urteko ziurtagiria, egindako edo jasotako ekarpenenei eta/edo prestazioei eta, hala badagokio, jasandako atxikipenei buruzkoa.
2. Sei hilabeteko ziurtagiria, aldi bakoitzean egindako zuzeneko ekarpenei edo egotzitakoei buruzkoa, eskubide ekonomikoen amaierako balioari buruzkoa, halakorik balego, eta aldi horretan ordaindutako prestazioen zenbatekoari buruzkoa. Halaber, kudeaketa txosten laburtu bat bidaliko da, salbu eta bazkideekin harremana telematikoa izaten denean. Kudeaketa txosten laburtuan aplikatzen den araudian ezarritako informazioa adieraziko da.

Bazkide arruntei eta onuradunei indarrean dagoen araudian araututako informazioa eskura jarriko zaie baliabide telematikoen bidez, salbu eta bazkide arruntak edo onuradunak aukeratzen badu dokumentazioa idatziz bidaltzea. Aurrekoa gorabehera, Kutxabank, S.A. ren edozein bulegotan eta BGAEaren egoitza sozialean eskatu ahal izango da.

III. TITULUA

EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA KONTINGENTZIEN ARAUDIA

9. art. PLANAREN SISTEMA FINANTZARIOA

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planak izango duen sistema finantzarioa-aktuariala **ekarpen mugatuko banakako kapitalizazio finantzarioa** izango da.

10. art. PLANARI EKARPENAK EGITEA

1. Planari ekarpenak bazkide arruntek egingo dizkiete.
2. Horien zenbatekoa bazkide arruntek zehaztuko dute dagokion dokumentuan, eta sarrerako balio data **BANAKAKO BASKEPENSIONES** BGAEaren kontu korrontean ordaintzen den eguna izango da.
3. Ekarpentak planari lotutako kontuan zordunduta ordainduko dira.
4. Bazkide arrunten ekarpenak hauek izan daitezke:
 - a) **Aldizkakoak.** Bazkide arruntak ezarriko du aldizkakotasuna, une bakoitzean Gobernu Batzordeak finkatuta dituenen artean. Bazkide arruntak aldaketa aurreikusi ahal izango du aldizkako ekarpenetarako.
 - b) **Apartekoak.** Bazkide arruntak bere nahierara egin ditzakeenak dira, modu bakarrean edo ez, eta aldeztatik ezarritako maiztasunaz edo zenbatekoaz baliatu gabe.
5. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde baten aurreikuspen planetan sartutako eskubide ekonomikoak **BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA**

planera mugitzeak une bakoitzean indarrean dagoen araudiak zehazten duen izaera izango du.

6. Planari atxikitzeko gutxieneko zenbatekoa Gobernu Batzordeak ezarriko du une bakoitzean.

11. art. ALDIZKAKO EKARPENAK ALDATZEA, ETETEA ETA BERRIZ BIDERATZEA

1. **Aldatzea.** BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEari idatzizko jakinarazpen bat bidalita, BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planeko bazkide arruntak, atzeraeraginik gabe, aldatu ahal izango du bere ekarpenen sistema, zenbatekoari, aldizkakotasunari edo aldakuntzari dagokienez.
2. **Etetea.** Jakinarazpen idatzi bidez, bazkide arruntak etorkizuneko aldizkako ordainketak eten ahal izango ditu, aldi baterako edo behin betiko.
3. Bazkide arruntak edozein unetan **berriz bideratu** dezake aurrez etendako aldizkako ekarpenen ordainketa BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEari idatzizko jakinarazpen bat bidalita.

12. art. HELBIDERATUTAKO EKARPENAK EZ ORDAINTZEA

Ekarpen bat bankuko kontu batean helbideratuta dagoenean, ekarpen bat ordaintzen ez bada, BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEak ez du berriz saiatu beharko zordunketa egiten.

13. art. EKARPENAK ITZULTZEA

Ekarpenak kobratzeko administrazio prozesuan izandako akatsen ondorioz, horiek oker zorduntzen badira BANAKAKO BASKEPENSIONES, BGAEaren bazkide arruntan kontuetan, bazkideek eskatu ondoren, itzulketa tramitatuko da, betiere zerga ekitaldi berean egiten bada.

14. art. INBERTSIOEN ARAUDIA

Estatutuen arabera, planari atxikitako ondarea haren izaerari egokitutako segurtasun, likidezia eta errentagarritasun irizpideen arabera inbertituko da, mota horretako erakundeei aplikatu beharreko araudian zehaztutako moduan eta zenbatekoan, eta, zehazkiago, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikulua arabera.

BASKEPENSIONES ERRENTA FINKOA EPE LABURRERA planari atxikitako ondarea Gobernu Batzordeak erabakitako muga barruan inbertituko da, betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako premisen arabera. Muga horiek aldeztuak jakinaraziko zaizkie bazkideei, Inbertsio Printzipioen Adierazpenaren bidez. Hori guztia, bazkide bakoitzak BANAKAKO

BASKEPENSIONES BGAEan integratzen diren planen artean bere eskubide ekonomikoak mugitzeko duen eskubideari kalterik egin gabe, horretarako araudiaren arabera ezarritako baldintzak betez eta, plan garantizatuen kasuan, haien ezaugarriak errespetatuz.

15. art. PLANAREN PRESTAZIOAK

Araudi honen hurrengo artikuluan xedatutako prestazioek bazkide arruntak edo onuradunak horiek ordaintzeko egunean dituen eskubide ekonomikoen balioa izango dute.

Eskubide ekonomikoak, dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea ematen duen kontingentzia gertatu arte, ez dira enbargatuko, eta ezin izango da horien gainean kenkaririk, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik egin, ezta inolako kontraturen berme gisa eratu ere.

Kontingentzia gertatu ondoren, eta enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da.

Heriotza gertatuz gero, enbargoa, traba judiziala edo administratiboa egonez gero, epaitegi edo administrazio eskudunak ezarritakoa beteko da, hala dagokionean, onuradunei dagozkien hondar eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik.

16. art. PLANAK ESTALITAKO KONTINGENTZIAK

Hauek dira planak estaltzen dituen eta prestazioak ordaintzea eragiten duten kontingentziak:

a) Erretiroa: erretiroagatiko kontingentzia egindakotzat joko da, bazkide arruntak egiatan erretiroa hartzen duenean Gizarte Segurantzari eta antzekoetan. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta Gizarte Segurantzak kasuan kasu aitortzen dituen horien pareko beste formulak, denak ere, erretiroa izango dira.

Egoera horretara iritsi ezin bada, bazkide arruntak 60 urte betetzen dituenetik aurrera eskatu ahal izango da prestazioa, baldin eta lan edo lanbide jarduera egiten ez badu edo bertan behera uzten badu eta Gizarte Segurantzako ezein araubidetan erretiro kontingentziarako kotizatzen ari ez bada.

Erretiro partzialeko araubidean sartzen diren bazkideek, dagokien prestazioa jasotzen ari badira ere, erabateko erretirorako ekarpenak egin ahal izango dituzte.

b) Lanerako ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan eta antzekoetan ezarritakoaren arabera.

Estali daitekeen lanerako ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasunaren kontingentzia ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala, ohiko lanbiderako ezintasun osoa, lan orotarako

ezintasun absolutua eta baliaezintasun handia izango dira. Egoera horiek zehazteko, dagokion Gizarte Segurantzako araubidean araututakoa beteko da.

Bazkide arruntak ezin badu Gizarte Segurantzako sistema publikoaren baliaezintasun prestazioren bat eskuratu, baliaezintasun kontingentzia gertatuko da, baldin eta, kotizazio gabeko pentsioetarako aplikatu beharreko araudiaren arabera, organo ofizial eskudunek edo erakundeak balorazio funtzio hori berariaz esleitzen dion organoak % 33tik gorako desgaitasun edo gaixotasun maila zehazten badu, aipatutako araudian jasotako baremoak aplikatuz.

c) Heriotza. Bazkide arrunta hiltzeak alargun edo zurztasun prestazioak edo beste onuradun batzuen aldeko prestazioak jasotzeko eskubidea sor dezake. Onuradunak, bere izaera modu frogagarrian egiaztatu ondoren, aukera hauetako bat hautatu ahal izango du:

- Erakunde bazkide gisa integratzea, dagozkion eskubideekin.
- Eskubide horiek onuradunak adierazten duen erakundera mugitzeko eskatzea.
- Bazkide arruntaren heriotzagatiko prestazio gisa, eskubideak, osorik edo zati batean, jasotzea.

d) Mendekotasuna: adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialaren faltagatik edo galeragatik, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza garrantzitsuak behar dituzten pertsonen egoera iraunkorra izango da, edo desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar dituztenak. Kontingentzia mendekotasun larria edo mendekotasun handia izango da, mendekotasunari buruz indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera.

e) Iraupen luzeko langabezia: enplegua galtzea edo jarduera uztea langile autonomoen kasuan, baldin eta irizpide hauek betetzen badituzte:

- (i) Legezko langabezia egoeran egotea. Ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira lan edo administrazio harremana azkentzeko eta lan kontratua eteteko kasuak, Gizarte Segurantzaren legerian halakotzat jotzen direnak.
- (ii) Langabezia prestazioetarako eskubiderik ez izatea bere kontribuzio mailan edo, hala badagokio, urtebetez kobratuta izatea, salbu eta aurretik prestazio hori amaitu bada. Urtearen zenbaketa egiaztatu ahal izango da, langabeziako 12 hilabeteak elkarren segidakoak ez badira ere.
- (iii) Eskaera egiten den unean enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea dagokion enplegu zerbitzu publikoan.
- (iv) Aurrez Gizarte Segurantzako araudi batean sartuta egon diren eta beren jarduera utzi duten norberaren konturako langileen kasuan ere, prestazioa gauzatu ahal izango da, baldin eta aurreko (ii) eta (iii) paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badira.
- (v) Prestazioa hileko errenta gisa ordainduko da, salbu eta bazkide arruntak ordainketa bakarra eskatzen badu enplegua sustatzeko helburu zehatzekin. Hileko errenta baliokidea zehazteko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- Langabeziagatiko kontribuzio prestazio publikoa jasotzen bada, gehieneko errenta baliokidea jasotako kontribuzio prestazioaren parekoa izango da, eta hasierako zenbateko gordin berdina izango du.
- Kontribuzio prestaziotik jasotako zenbatekoa murrizten bada, murrizketa hori konpentsatu ahal izango da prestazio osagarria gehituz, egindako murrizketaren zenbateko berdinarekin, gehienez.
- Kontribuzio prestaziorako eskubiderik ez badago, gehieneko prestazio baliokidea kalkulatzeko, sistema publikoan egindako kotizazioak eta kontribuzio prestaziorako eskubidea izateko baldintzak bete izana hartuko dira kontuan.

f) Gaixotasun larria: edozein gaitz fisiko edo mental, edo lesio, gutxienez hiru hilabetez jarraian izatea bazkide arrunta lan egiteko edo ohiko jarduera egiteko ezgaitzen duena, edo bazkideak, izatezko bikotekideak edo haren lehen graduko aurrekoek edo ondorengoek, edo tutoretza edo harrera araubidean bazkide arruntarekin bizi den pertsonak kirurgia handia edo ospitaleko tratamendua behar izatea.

Aurreko kasu horiek gaixotasun larritzat hartuko dira, baldin eta bazkide arruntak ezintasun iraunkoragatiko prestazioa – edozein mailatakoa – jasotzen ez badu, Gizarte Segurantzaren araubidearekin bat etorriz, eta bazkideari errenta erabilgarria murriztea badakarkio gastuak handitzeagatik edo diru sarrerak murrizteagatik, eta hori modu egokian egiazta badaiteke. Horretarako, gastuen aurrekontuak aurkeztea onartuko da.

Prestazio eskaerak idatziz bidali beharko dira **BANAKAKO BASKEPENSIONES BGA**Era, dagozkion zirkunstantziak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera.

17. art. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODALITATEA

Aipatutako kontingentziak gertatzearen ondorioz bazkide arruntek eta onuradunek eskubidea dute prestazioak jasotzeko, eskubide hori onartu ondoren, eta modalitate hauetakoren batean jaso ahal izango dira:

- Kapitala: zenbatekoa bazkidearen eskubide ekonomikoen balioaren berdina izango da gehienez, eta bazkide arruntak edo onuradunak prestazioa kapital partzial gisa eskatu ahal izango du.

- Errenta: zenbatekoa prestazioa sortzen den unean eskubide ekonomikoek duten balioaren araberakoa izango da, Gobernu Batzordeak une horretan finkatuta dituen errenta mota eta ezaugarrien araberakoa. Prestazioak errenta moduan kobratzen hasitakoan, zati batean edo osorik kobratzea aurreratzen bada, zenbateko hori kapitaltzat joko da.

- Kapitala - Errenta: aurreko modalitateen konbinazioa da.

Gaixotasun larriagatiko prestazioa kapital gisa gauzatuko da, eta ezin izango du gainditu gaixotasunaren ondorioz diru sarrerak murriztearen edo gastuak handitzearen ondoriozko zenbatekoa, ezta bazkide arruntaren eskubide ekonomikoak ere.

Iraupen luzeko langabeziaren prestazioa hileko errenta gisa gauzatuko da, araudi honetan xedatutako baldintzetan, salbu eta bazkide arruntak ordainketa bakarra eskatzen badu enplegua sustatzeko helburu zehatzekin.

18. art. PRESTAZIOEN ORDAINKETAREN PROZEDURA ETA ONARPENA

1. Prestazio baten kontingentzia erabakigarria gertatu ondoren, jaso nahi duen bazkide arruntak eta/edo onuradunak BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEari jakinaraziko dio, eta beharrezko informazioa eta prestazioa jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko ditu.

2. Dokumentazio hori BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEak aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen dituen datu osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. BGAEak gehienez ere bost egun balioduneko epean ordainduko ditu prestazioak, erakundearen eskabidea eta egiaztasun guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita. Hala ere, gertakaria bazkide arrunt baten heriotza bada, onuraduna nor den zehaztu ondoren hasiko da epe hori.

4. Bazkideek edo onuradunek egin dezaketen edozein erreklamazio egiteko, BANAKAKO BASKEPENSIONES BGAEko Gobernu Batzarrera edo bazkidearen defendatzailearengana joko dute, erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera, eta egiten den lehenengo bilerako gai zerrendan sartuko da. Horri buruz hartzen den erabakia erreklamaziogileari helaraziko zaio.

19. art. PRESTAZIOAK JASO IZANAREN ZIURTAGIRIAK

Urte natural bakoitza ixtean, BANAKAKO BASKEPENSIONES, BGAEak ziurtagiri bat bidaliko die bazkide arrunt pasiboari eta onuradunari, urtean zehar jasotako prestazioen zenbatekoa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako atxikipenak adieraziz.

IV. TITULUA

ADMINISTRAZIO GASTUAK

20. art. ADMINISTRAZIO GASTUAK

Planaren administrazio gastuak aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren mende egongo dira, %1,60ekoak izango dira, eta hari atxikitako ondarearen arabera kalkulatuko dira.

Ondorio horietarako, administrazio gastutzat joko dira planari atxikitako ondarea administratzaileen ondorioz sortzen diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, baloreak erosteagatik edo saltzeagatik eratorritako bitartekaritza gastuak izan ezik.

V. TITULUA

ARAUDIA ALDATZEA

21. art. ARAUDIA ALDATZEA

Araudi hau aldatu ahal izango da, erakundeko Gobernu Batzordeak proposatu eta onartuz gero, ondoren Eusko Jaurlaritzan aurkeztu da, eta hark baimendu eta erregistratuko du.

VI. TITULUA

GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA

22. art. GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Bazkide arruntak, onuradunak edo haren eskubidedunek legez aitortutako interes eta eskubideekin lotutako kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu Batzordean edo haiek aukeratutako bazkidearen defendatzailearen aurrean.

Gobernu Batzordeak, hala badagokio, dagokion ebazpena erakundearen zuzendaritzari eskuordetu ahal izango dio, edo, hala badagokio, hari zerbitzu profesionalak ematen dizkioten pertsona fisiko edo juridikoei.

Bazkidearen defendatzaileak gehienez ere 30 eguneko epean ebatziko ditu bere prozedura araudiaren arabera aurkezten zaizkion erreklamazioak, eta erreklamazioaren aldeko erabakiak lotesleak izango dira erakundearentzat.

Bazkidearen defendatzailearen edo, hala badagokio, Gobernu Batzordearen erabakia ez da oztopo izango babes judizial osoa izateko, ezta administrazioaren kontrol eta gainbegiratze eginkizunak betetzeko ere.

Aurrekoa gorabehera, kexa edo erreklamazioa Batzar Nagusiaren edo Gobernu Batzordearen erabaki baten ondorio bada, erakundearen estatutuetan xedatutakoa aplikatuko du.

VII. TITULUA

PLANA AZKENTZEKO KAUSAK ETA ONDAREAREN XEDEA

23. art. PLANA AZKENTZEA

Plana azkendu egingo da:

- a) Bazkide arruntik eta onuradunik ez egoteagatik.
- b) Gobernu Batzordearen erabakiz, eta aldez aurreko betekizuna izango da sortutako prestazioak banan-banan bermatzea eta bazkide arrunten eta onuradunen eskubide ekonomikoak erakundearen edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde baten beste aurreikuspen plan batean sartzea. Kasu horretan, Gobernu Batzordearen erabakiak zehaztu beharko du xede zehatza (erakunde honen edo beste baten aurreikuspen plana) eta xede horren berri eman beharko die aldez aurretik bazkide arruntei eta onuradunei, gutxienez bi hilabete lehenago, egoki iritziz gero, eskubide ekonomikoak aurrekoa ez den aurreikuspen plan batera mugi ditzaten.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi hau BANAKAKO BASKEPENSIONES, BGAEaren estatutuetan txertatzen da, eta estatutu horiek osatzen ditu.